

AGURRA

- Oi, ba-oa, maite?
Ba-oa, ene eguzki,
ene arima zati?...
Oi, egia ete?...
- Bai, ziurki, ba-noa: eta esaidan: «Agur!»
Ez esan itz mergatzik,
ez dot opa zotiñik,
ager zakit samur.
—Ba-oa... noiz arte?
Itunaz mokoz-moko
luzez bizi bearko,
ire itzalik gabe?
- Oraingotan zain ditut izarrak zeru zear:
Txaloz artuko nabe,
kezka ta istillu gabe,
Noiz itzuli bear?
—Ezertxo enerik
ba-daroak aldean
gau haltza zurbiltzean
ni oroitzekorik?
- Uts ditut esku biak: ez, ostera, biotza:
sorgin-ames urdiñez
ta itxaropen utsez
daroat gaiñezka.
—Baiña, maite, zer
egingo bidez-bide?
Urrin emazte ta aide,
eta pozik ezer?...
- Bidazti uts nabilke, maitale txit bulartsu:
arantzaz da bidea,
etsai-arriskuz betea,
baiña ez naz izu.
—Nitaz oroituko
goiza urratzekoan,
ta eguna lainoan
bil garaiz okerto?
- Bai, zu zaituket, arrats oria iltean,
nik gogoan ertsia:
itxar nai loz jausia,
nik zu muin-muiñean.